

III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

EUSKO JAURLARITZA

LAN ETA JUSTIZIA SAILA

Arabako Lurralde Ordezkaritza

DHL Parcel Araba Spain, SL enpresarentzako hitzarmen kolektiboa

Ebazpena, Lan eta Justizietako Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Arabako lurralde ordezkariarena. Honen bidez ebazten da 2018-2019-2020 DHL Parcel Araba Spain, SL enpresarentzako hitzarmen kolektiboa erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea. Hitzarmenaren kodea: 01100282012013.

AURREKARIAK

2019ko urtarrilaren 31n aurkeztu da, Ordezkaritza honetan, negozioazio batzordeko enpresari ordezkariak eta ordezkari sozialek, 2018ko abenduaren 21ean sinatu zuten lan hitzarmen kolektiboaren testua.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa. Langileen Estatutu Legearen 90.2 artikulua, urriaren 23ko 2/2015 Errege Dekretu Legegilea (2015eko urriaren 24ko BOE) aurreikusten duen eskuduntza lan agintaritza honi dagokio, apirilaren 11ko 84/2017 Dekretuko 15.1.h artikulua –Lan eta Justiziako Saileko egitura organika eta funtzionala ezartzen duena (2017ko apirilaren 21eko EHAA)- dionarekin bat etorritik eta urtarrilaren 25eko 9/2011 Dekretuarekin (2011ko otsailaren 15eko EHAA) eta maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretuarekin (2010eko ekainaren 12ko BOE) – hitzarmen kolektiboaren erregistroari buruzkoak- lotuta.

Bigarrena. Sinatutako hitzarmen kolektiboak betetzen ditu lehen aipatutako Langileen Estatutu Legearen 85, 88, 89 eta 90 artikuluek xedatutako baldintzak.

Honen ondorioz,

EBATZI DUT

Lehenengoa. Euskadiko Lan Hitzarmen eta Akordio Kolektiboaren Erregistroko Arabako Lurralde Bulegoan erregistratu eta gordailatzeko agintzea eta aldeei jakinaraztea.

Bigarrena. ALHAOn argitara dadin xedatzea.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko otsailaren 21a

Arabako lurralde ordezkaria
CARMEN DE CELIS CUEVAS

**“DHL Parcel Araba Spain SL” enpresako Jundiz Zentro Intermodaleko
Gasteizko 1. Garraio zentroko lantokiko hitzarmen kolektiboa**

Hitzarmenaren kodea: 01100282012013

I. kapitulua

Xedapen orokorrak

Hitzaurrea

Aldeek jasoarazi dutenez, enpresaren izen soziala aldatu den arren, ez da aldaketarik egon haren IFKn eta KKZn. Ondorioz, hitzarmen kolektibo honen aurrekaria 01100282012013 zenbakiarekin erregistratutakoa da.

1. artikulua. Izenpetzaileak

Martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretuak, Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duenak, III. tituluan ezarritakoaren arabera, lantokia-hitzarmen honen izenpetzaile dira, batetik, langileen legezko ordezkariak, eta, bestetik, enpresako zuzendaritza. Izenpetzaileek behar adina gaitasun eta legitimazio aitortu diote elkarri hitzarmen hau negoziatzeko.

2. artikulua. Langileak

Hitzarmen honek DHL Parcel Araba Spain SL, Jundiz, 1 CTV kalean, enpresan zerbitzuak ematen dituzten langile guztiei eragiten die.

3. artikulua. Lurralde-eremua

Hitzarmen hau aplikatuko da DHL Parcel Araba Spain SL enpresaren Jundiz Zentro Intermodaleko Gasteizko 1. Garraio Zentroko lantokian, hura indarrean den bitartean.

4. artikulua. Eremu funtzionala

Hitzarmen honek DHL Parcel Araba Spain SL enpresaren lan-harremanak eta Jundiz Zentro Intermodaleko Gasteizko 1. Garraio Zentroko lantokiko lan-kontratupeko langileak arautzen ditu.

5. artikulua. Indarraldia eta amaieraren iragarpena

Hitzarmen hau 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera jarriko da indarrean, eta 3 urteko iraupena izango du, hau da, 2020ko abenduaren 31ra arte, edozein izanik ere ofizialki argitaratzen den eguna. Hitzartutako iraupena amaitutakoan, aldeetako edozeinek haren amaiera iragarri ez badu, hitzarmena urtero luzatuko da.

Hitzarmen honen amaiera hitzarmenaren indarraldia edo urteroko luzapenetatik edozein amaitu baino gutxienez bi hilabete lehenago iragarri beharko da. Berariaz hitzartzen da, Langileen Estatutuaren 86.3. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, amaiera iragarri eta hitzartutako iraupena amaitu ostean hitzarmenak indarrean jarraituko duela, harik eta bi aldeek hori ordeztuko duen beste bat sinatzen duten arte.

6. artikulua. Osotasunari men egitea

Hitzartutako baldintzek osotasun organiko eta zatiezina eratzen dute, eta, aplikazio praktikoari dagokionez, bere osoan hartuko dira.

7. artikulua. Osotasunarekiko lotura

Agintarritza eskudunak, berezkoak zaizkion eginkizunak betetzean, ez badu onartzen hitzarmeneko adostasunetako bat, azken hori eraginkortasunik gabe geratuko da, oso-osorik, eta, beraz, berriz ere negoziatu beharko da adostasuna, osorik, hilabeteko epean, hori ezartzen duen administrazio-ebazpena edo epaia irmo bihurtzen denetik aurrera.

8. artikulua. Irenstea eta konpentsatzea

Hitzarmen honetan itundutako baldintza ekonomikoek osotasun edo unitate zatiezina eratu dute, eta aplikazio praktikoari begira, oro har hartuko dira kontuan urteko zenbatekoan.

Hitzarmen honetan ezarritako kontzeptu ekonomikoek gaur egun enpresan dauden guztiak beren baitan hartuko eta konpentsatuko dituzte indarrean jartzen diren unetik, horien izena, izaera edo jatorria gorabehera.

Ekonomia-kontzeptuetan edo aplikazio orokorreko lege-xedapenei jarraikiz hitzarmen hau indarrean den bitartean ezarriko diren edonolako beste kontzeptuetan egingo diren igoerek hitzarmenari eragingo diote, soilik orokorrean eta urteko zenbatekoan hitzarmen honetan itundutakoak gainditzin badituzte. Kontrako kasuan, irentsi eta konpentsatu egingo dira, eta hitzarmen honek bere irizpideen arabera iraungo du, kontzeptu ekonomikoetan aldaketarik egon gabe.

9. artikulua. Berme pertsonala

Hitzarmen honetan jasotako baldintza ekonomiko guztiak jotzen dira gutxieneko baldintzat. Ondorioz, edozein kontratutan indarrean dauden itunek, klausulek eta baldintzek, oro har kontuan hartuta eta urteko zenbaketan, langilearentzat edo langileen taldearentzat baldintza hoberik eragiten badute hitzarmenean ezarri diren baldintzen aldean, horiek gozatzen dituzten pertsonen berme pertsonal gisa jarraituko dute. Aurreko 8. artikuluan adierazitakoa aplikatu ahalko da, edonola ere.

10. artikulua. Zein araudi aplikatuko zaien

Hitzarmen honetan aurreikusten ez diren alderdietan, honako hauek beteko dira: Errepide bidezko Salgaien Garraio Enpresentzako II. Akordio Orokorra, 2012ko martxoaren 13ko ebazpen bidez onartua eta 2012ko martxoaren 29ko BOEn argitaratua; Errepide bidezko Salgaien Garraiorako Industriaren eta Arabako Garraio Agentzien Sektorerako Hitzarmen Kolektiboa, 2017ko irailaren 8ko ALHAOn argitaratua; edo etorkizunean egiten diren eguneraketak, honako honetan jasotzen denaren aurka ez badoaz, urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuak (Langileen Estatutuaren Legearen testuategina onartzen duenak) 84.2. artikuluan jasotako lehentasun aplikatiboaren gainean; eta gainerako lege-arauak.

11. artikulua. Batzorde paritarioa

1. Batzorde paritario bat eratuko da, eta kide hauek izango ditu: hiruna ordezkari alde bakoitzetik, hau da, enpresaren eta langileen aldetik. Hitzarmen honen aplikazioaren inguruko gai edo arazo orokorrak aztertuko ditu, alderdietako edozeinek eskatuta. Hitzarmenaren soldata-erregimena ez aplikatzeko proposamenak ere aztertuko ditu, interesdunek hala eskatzen badiote.

2. Batzorde paritarioak ez badu akordiorik lortzen aurreko idatz-zatian esandakoaren arabera haren esku jarritako gatazkak konpontzeko, aldeak behartuta egongo dira Laneko Gatazkak Ebazteko Borondatezko Prozedurari buruzko Lanbide Arteko Akordioak (GEP) ezarritako bidera jotzera (2000ko apirilaren 4ko EHAAn, 66. zenbakian, argitaratu zen GEP).

3. Hitzarmen hau interpretatzean eta aplikatzean gatazka kolektiborik sortuz gero, edota hitzarmen honen aplikazio-eremuan sartzen diren langileei eta enpresariei eragiten dien beste edozein, aurreko idatz-zatian aipatutako Lanbide Arteko Akordioan araututako prozeduren arabera ebaztiko da.

4. Batzordea, beranduenez ere, hilabeteren buruan bilduko da, aldeetako batek biltzeko eskatzen duen egunetik zenbatzen hasita. Batzordeak batzordeburu eta idazkari izendatu ahal izango ditu bi batzordekide, bakoitza aldeetako batekoa, eta urtero txandakatuko dira.

Batzorde Paritarioaren erabakiek balioa izan dezaten, ordezkaritza bakoitzeko botoen ehuneko 51k berretsi behar izango ditu.

12. artikulua. Desadostasunak konpontzeko prozedura

Urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duenak, 85.3.c) artikuluan ezarritakoa betez, hauxe zehazten dute alderdiek: kontsulta-aldia akordiorik gabe amaitzen bada, alderdiek beren-beregi egiten diotela men Laneko Gatazkak Ebazteko Borondatezko Prozedurei buruzko Lanbide arteko Akordioari (GEP) 2000ko apirilaren 4ko EHAA, 66. zenbakian, argitaratu baitzen, bitartekaritza-prozedurari dagokionez. Arbitrajea, berriz, alderdien erabaki askearen mende geratzen da.

II. kapitulua

Lan-araubidea

13. artikulua. Lanaldia

Lanaldia nola banatu enpresaren baitan adostuko da, langileen legezko ordezkariak eta kudeatzaileak egindako bilera zehatzean, egungo akordioaren arabera. Hala, konpromiso irmoa hartzen da Kudeatzaileak logistikako bezeroekin adostu dezan jai-egunetan lanik ez egiteko aukera; hau da, jai-egunetan nahitaez lan egitea saihestu dadin.

14. artikulua. Ogitartekoa

Zerbitzua lanaldi osoan eta etengabe ematen duten langileek 30 minutu baliatzeko eskubidea izango dute, mokadu bat hartzeko. Atsedeen-denbora hori benetako lan-denboratzat zenbatuko da.

15. artikulua. Oporrak

Langileek urtean 24 egun baliaduneko oporraldia izango dute. Egun horietatik gutxienez 12 elkarren segidakoak izango dira, eta uztailea, abuztua eta iraila bitartean hartzekoak. Gainerako 12 egunak hartzeko data enpresak eta langileek elkarren artean adostu beharko dute.

Ezingo dira hasi jai-egunean, ez eta jaia baino lehen ere, ezta larunbat eta igandeetan.

Oporraldia bat badator aldi baterako ezintasun-egoeraren batekin eta langile horrek ezin baditu oporrak dagokion urte naturalean hartu, langileak oporrak hartu ahal izango ditu aldi baterako ezintasun-egoera bukatzen denean, jatorrizko inguruabarra eta igarotako aldia edozein izanda ere. Aldi baterako ezintasuna langilea oporretan dagoen bitartean gertatzen bada, alta eman ondoren jarraituko da oporrekin.

16. artikulua. Kontratazioak eta lanaldi-luzapenak

Adostu denez, gaur egun enpresan lan egiten duten aldi baterako laneko 8 enpresa kontratatuko dira, eta gaur egun lanaldi partzialeko kontratua duten 2 langileri lanaldi osoa emango zaie.

Salbuespen gisa, langile horiek enpresan sartzan diren lehenengo hiletik aurrera jasoko dute hurrengo 20. artikuluan planteatzen den plusa, beren lanaldiaren arabera.

Urte bakoitzeko urtarrilean, langileak lagatzeko erabilitako kontratuak aztertuko dira, horiek ohiko plantillan finkatzeko bideragarritasuna aztertzeko, baldin eta langileak horretarako interesa baldin badauka.

III. kapitulua

Baldintza ekonomikoak

17. artikulua. Ordainsarien eta kalte-ordainen kontzeptuak

Hitzarmen hau egiterakoan, honako ordainsari eta kalte-ordain hauek arautu dira:

Ordainsarien kontzeptuak: oinarrizko soldata.

Osagarriak: antzinasuna eta osagarri pertsonala, hala badagokio. Errendimendu-prima, aurrerapen-plusa, aparteko orduak, uztaileko eta Gabonetako hobariak, mozkinetako partaidetza, eta, hala badagokio, ADR-ren berritzea.

Kalte-ordainen kontzeptuak: dietak, distantzia-plusa, gaueko lanaren plusa.

18. artikulua. Oinarrizko soldata

Hitzarmenaren oinarrizko soldata kategoria profesional bakoitzerako agertzen dena izango da, hots, soldataren eranskinetako zutabearen azaltzen dena.

19. artikulua. Errendimendu-prima

Errendimendu-primak jarduera normalarekin lotuta egongo dira, eta jai-egunetan nahiz atsedeen-egunetan lan egindako egunagatik sortuko dira, erantsitako soldata-tauletan adierazten den zenbatekoan.

20. artikulua. Aurrerapen-plusa

Iraileko, pizgarrien ziozko eta eskorgarekin lotutako egungo plusen orde, aurrerapen-plusa deritzon plus berri bat jarriko da. Hilero jasoko da, enpresan egondako hamahirugarren hila-betetik aurrera. Jai-egunetan nahiz atsedeen-egunetan lan egindako egunagatik sortuko da, erantsitako soldata-tauletan adierazten den zenbatekoan.

Plantillako egungo langileek ez dute murrizketarik jasango beren soldatetan, eta gaur egun jasotzen dituzten plus finkoen zenbatekoak plus berri horren bidez jasoko dituzte.

21. artikulua. Antzinasuna

Antzinasunaren ziozko saria hitzarmeneko soldata-taulen lehen zutabearen agertzen diren ordainsarien (oinarrizko soldaten) gainean ordainduko da.

Hitzarmen honen aplikazio-eremuaren eraginpeko langileek oinarrizko soldataren gaineko ehuneko 5eko aldizkako igoera izango dute enpresa berean lanean emandako bosturteko bakoitzeko, honako taula honen arabera:

Bost urtera	ehuneko 5
9 urtera	ehuneko 5
10 urtera	ehuneko 10
15 urtera	ehuneko 15
16 urtera	ehuneko 15
20 urtera	ehuneko 20
24 urtera	ehuneko 20
25 urtera	ehuneko 25
29 urtera	ehuneko 25

23. artikulua. Osagarri pertsonala

Errepide bidezko Salgaien Garraiorako Industriaren eta Arabako Garraio Agentzien Sektorerako Hitzarmen Kolektiboaren 23. artikuluan (2017ko irailaren 8ko ALHAOn argitaratutakoan) jasotako osagarri honen balioak hitzarmen honi erantsitako tauletan jasoko dira.

22. artikulua. Aparteko ordainsariak

Hitzarmen honetan aparteko bi ordainsari ezartzen dira, uztailean eta Gabonetan, lanbide-kategoria bakoitzerako soldata-tauletan ezartzen den zenbatekoan, antzinasunaren eta osagarri pertsonalaren (hala badagokio) kontzeptuak gehituta.

Zenbateko hori ez da aldatuko aldi baterako ezintasunen kasuan.

Langilea urtean zehar sartzen bada lanera, lan egindako denborari dagokion zati proporzionala ordainduko zaio.

Aparteko ordainsarien ordainketa proportzionalki banatzen den enpresetan, langileak eskubidea izango du zenbateko horiek proportzionalki banatu ez daitezela eskatzeko. Hala eginez gero, idatziz formalizatu beharko du bere eskaria.

23. artikulua. Mozkinetako partaidetza

Mozkinetan egindako partaidetzaren zioz enpresek hobaria ordainduko dute, honela: soldata-tauletan finkatutako kopurua, gehi enpresan emandako antzinatasunari eta osagarri pertsonalari, hala badagokio, dagokiona.

Zenbateko hori ez da aldatuko aldi baterako ezintasunen kasuan.

Bukatutako urteen arabera ordainduko da, baina hilabetetan hainbanatu ahal izango da, enpresa eta langileak ados jarrita.

Langilea urtean zehar sartzan bada lanera edo bertatik irteten, lan egindako denborari dagokion zati proportzionala ordainduko zaio.

24. artikulua. Aparteko orduak

Aparteko orduak ordaintzeko, indarrean dauden legeek ezarritakoa beteko da edo langileen eta enpresaren artean dauden edo hitzarmenaren indarraldian adostu daitezkeen akordioetan ezarritakoa, eta ordu horiek denbora librearekin konpentsatzea lehenetsiko da, langileak nahi badu. Balio ofiziala soldata-tauletan zehazten da, antzinatasuna kontuan hartu gabe.

Ustekabeko, ezinbesteko edo egiturazko arrazoiak direla-eta egin beharreko aparteko orduak egin egingo dira, betiere langabetuak kontratatuta osatu ezin badira, legalki aurreikusitako modalitate ezberdinetan. Eskaera bereziak, produkzio puntako denboraldiak, ustekabeen norbaitek lanari huts egitea, matxurak, errepide-mozketak eta antzekoak... bezalako kasuetan aplikatuko dira aparteko orduak.

25. artikulua. Dietak

Dagokion dieta jasotzeko eskubidea duen langileari 1. Eranskinean agertzen den zenbatekoa ordainduko zaio.

Oharra: dieta nazionaletan Portugal sartzan da.

26. artikulua. Distantzia-plusa

Lantoki jakin batean langile bat kontratatu bada eta, ondoren, enpresak beste udalerrri batera lekualdatzen badu, honela jokatuko da:

— Langileak helbidea aldatzen badu, enpresak ordainduko dizkio bere gauzak lekualdatzearen ziozko gastuak.

— Langilearen helbidetik enpresaren lantoki berrira lekualdatzeko garraio publiko erregularra erabil badaiteke, lanaldiarekin bat egiten duten orduetan, garraioaren zenbatekoa ordainduko zaio edo garraio-txartel bat emango.

— Langileak bere ibilgailu partikularra erabili behar badu lekualdatzeko, enpresak ukitutako langileekin adosten dituen zenbatekoak jasoko ditu.

27. artikulua. Gaueko lanaren plusa

Gaueko lanaren plusa idatziz edo isilpean ituntzen ez bada, lan egindako ordu bakoitzeko oinarrizko soldataren ehuneko 25 ordainduko da, 22:00etatik 6:00etara bitarteko ordutegiaren barruan.

Hori kalkulatzeko, hileko oinarrizko soldata bider 12 egingo da, eta emaitza hori urteko lanaldiarekin zatitu. Orduko balioa zehazten duen emaitza horri ehuneko 25eko igoera aplikatuko zaio, gaueko orduaren prezioa eskuratzeko.

28. artikulua. Gaitasun Profesionaleko Ziurtagiria eta A D R-ren berritzea

Errepide bidezko Salgaien Garraio Enpresentzako II. Akordio Orokorrak (2012ko martxoaren 29ko BOEn -76. zenbakikoan- argitaratutakoak) 64. artikuluan (gidarien prestakuntza) ezarritakoa beteko da. Honako hau dio, hitzez hitz:

Gaitasun Profesionaleko Ziurtagiria eta salgai arriskutsuen txartela (ADR) berritzeko prestakuntza-ikastaroak enpresak berak emango ditu, bitarteko propioen bidez edo beste zerbitzu batzuekin itunduta.

Prestakuntzaren kostua enpresak ordainduko du. Langileek horretan ematen duten denbora Langileen Estatutuaren 23.3. artikuluan ezarritako baimen ordainduan aplikatuko da, otsailaren 10eko 3/2012 Legegintzako Errege Dekretuak hari emandako idazkuntzan.

Salgai arriskutsuen garraiorako ibilgailuak gidatzeko gaikuntza ematen duen baimena berritzeko azterketak gainditzen ez dituzten langileei eten egingo zaie lan-kontratua, gehienez ere sei hilabetez, eta epe horren barruan aipatu baimena eskuratu beharko dute.

IV. kapitulua

Eskubideak eta bestelakoak

29. artikulua. Baimenak eta lizentziak

Langileak, aurretik hala ohartarazi eta justifikatu ondoren, salbu eta premiazko egoeretan eta ondoren justifikatuta, lanetik huts egin ahalko du, Errepide bidezko Salgaien Garraiorako Industriaren eta Arabako Garraio Agentzien Sektorerako Hitzarmen Kolektiboaren (2017ko irailaren 8ko ALHAOn argitaratuaren) 33. artikuluan aipatutakoa hobetzen duten edo bertan jasota ez dauden alderdietan, jarraian azaltzen diren arrazoiren bat gertatzen bada, eta honako denborarako:

1. urtean 20 ordu seme-alabei, ezkontideari edo amaginarreba-aitaginarrebei kontsulta medikora edo espezialistara laguntzeko.

2. Ezkontidearen edo seme-alaben heriotzagatik, 5 lanegun.

3. 2 lanegun seme-alaben jaiotzaren edo adopzioaren kasuan. Erditze anitzen kasuan, baimen hori proportzionalki handituko da, jaio diren edo adoptatu diren haurren kopuruaren arabera.

4. 2 lanegun, bigarren mailarainoko odol-ahaidetasunezko edo ezkontza-ahaidetasunezko ahaideen ospitaleratzeagatik, egoera horrek irauten duen bitartean.

5. 15 lanegun edoskitzeagatik, aldi hori metatzea erabakitzen bada.

6. Legezko zaintzaren ziozko murrizketa egunekoa, astekoa edo urtekoa izan ahalko da. Irailaren 1etik abuztuaren 31ra bitarteko eskola-garairako zehaztu beharko da.

30. artikulua. Seme-alaba natural edo adoptatuaren ziozko nahitaezko eszedentzia

Langileen Estatutuaren 46. artikulua hobetzeko, lanpostua gorde egingo da, adingabeak 3 urte izan arte.

31. artikulua. Bigarren mailarainoko odol-ahaidetasunezko edo ezkontza-ahaidetasunezko ahaideen zaintza artatzeko eszedentzia

Senide bat, adinagatik, istripuren batengatik edo gaixotasun nahiz ezgaitasunen bat izateagatik ezin bada bere kabuz moldatu eta ordaindutako jarduerarik egiten ez badu aplikatuko da. Langileen Estatutuaren 46. artikulua hobetzeko, lanpostua gorde egingo da, eszedentziaren 2 urteetan zehar.

32. artikulua. Genero-indarkeria

Genero-indarkeriaren biktima diren langileak epai judizial irmoaren bidez lanpostua uztera behartuta daudenean lan egiten ari ziren herrian, beren babesaren edo gizarte-laguntza integraren eskubidea gauzatzeko, lehentasunezko eskubidea izango dute DHL Parcel enpresaren beste edozein lantokitan hutsik dagoen beste lanpostu bat hartzeko, talde profesional berean edo kategoria baliokide batean. Langileak aukeratuko du lantokia, hainbat zentrotan hutsuneak badaude.

33. artikulua. Hitzarmena ez aplikatzeko edo aplikatzeari uzteko klausula

Hitzarmen honetan itundutako ultra jardueraren aldiak eta indarraldiak irauten duten bitartean, enpresak bertan hitzartutako lan-baldintzak bete ez ditzan honako prozedura hau jarraitu beharko da:

Enpresak 15 eguneko kontsulta-aldia irekiko du, enpresaren erabakia arrazoitzeko kausei eta horren ondorioak saihestu edo murrizteko aukerari buruz mintzatzeko, bai eta ukitutako langileentzako ondorioak arintzeko beharrezko neurriei buruz hitz egiteko ere. Epe horretan, hitzarmeneko batzorde paritariora jakinaren gainean jarri beharko da, eta langileen legezko ordezkariari emandako idazkiaren kopia aurkeztuko da.

Kontsultak egiteko aldiak irauten duen bitartean, aldeek fede onez negoziatu beharko dute, akordioa lortzearen. Akordiora iristeko, enpresa-batzordeko kideen, langileen ordezkarien edo, halakorik balego, ordezkariaren sindikalen gehiengoaren adostasuna behar da, guztien artean langileen gehiengoaren ordezkariak badute.

Kontsulten aldia amaitzean desadostasunik badago, edozein aldeek jo ahal izango du bost eguneko epean 2000ko otsailaren 16ko (apirilaren 4ko EHAA) gatazkak konpontzeko borondatezko prozeduren gaineko konfederazioen arteko akordiora (PRECO). Berariaz ezartzen da bi aldeek horren menpe jartzeko erabakia hartuta soilik aplikatuko dela arbitraje-prozedura.

Aldeek hitz ematen dute ez dute ORPRICCEra edo Hitzarmen Kolektiboen Kontsulta Batzorde Nazionalera joko, ez bada alde negoziatzaileetako bakoitzaren gehiengoak horren harira hartu duen berariazko akordioagatik.

Xedapen Gehigarriak

Lehena. Soldata-igoera.

Kolektibo osorako, hitzarmen honetan itundutako baldintzak, hitzarmena indarrean den aldi osoan aplikatu behar direnak, hari atxikitako taulan zerrendatzen direnak dira:

2018. urterako, ehuneko 1,90eko igoera hitzartu da.

2019. urterako, ehuneko 1,90eko igoera hitzartu da.

2020. urterako, ehuneko 1,75eko igoera hitzartu da.

Igoera hori urte bakoitzeko urtarrilaren 1etik ondoreekin ordainduko da.

Taulak egitean akatsik badago, aldeak bildu egingo dira, akatsak zuzentzeko, lortutako akordioaren arabera.

Soilik baldin eta aipatu hiru urteetan metatutako KPI Orokor Nazionalak, Estatistikako Institutu Nazionalaren webgunean aldean arteko aldakuntza kalkulatzeko sistemari buruz ezarritakoaren arabera, urte horietarako hitzartutako igoeren metaketa baino aldakuntza altuagoa badu, alde hori hartuko da kontuan 2020. urterako soldata-taulan aurreikusitako igoera erregularizatzeke.

Eranskina 1

2018

2018 SOLDATA TAULAK						
KATEGORIAK	OINARRIZKO SOLDATA	ETEKIN-SARIA.	OPOR-HILABETEA	APARTEKO ORDAINSARIAK	URTEKO GORDINA	APARTEKO ORDUAREN BALIOA
Tailerretako langileak						
Taldeburua	970,18	356,76	1.326,94	1.326,94	19.904,44	14,11
1. mailako ofiziala	902,52	328,23	1.230,75	1.230,75	18.461,15	13,10
2. mailako ofiziala	877,69	313,94	1.191,64	1.191,64	17.874,74	12,70
Peoi espezializatua	838,50	299,68	1.138,18	1.138,18	17.072,73	12,16
Goi mailako teknikariak						
Laguntzaile teknikoa-ing. tek.	1.002,40	356,75	1.359,16	1.359,16	20.387,50	14,44
Administrazio-langileak						
Atalburua	1.079,58	371,02	1.450,61	1.450,61	21.759,13	15,42
Bulegoburua	1.036,91	356,76	1.393,68	1.393,68	20.905,28	14,82
1. mailako ofiziala	967,13	328,20	1.295,30	1.295,30	19.429,58	13,80
2. mailako ofiziala	929,55	313,94	1.243,51	1.243,51	18.652,65	13,26
Laguntzailea	846,45	285,39	1.131,86	1.131,86	16.977,97	12,12
Garraio-agentziako langileak						
Biltegiko arduraduna	1.006,63	342,51	1.349,14	1.348,70	20.236,87	14,38
Langileburua	956,74	328,24	1.284,98	1.284,98	19.274,53	13,71
Biltegiko eta baskulako laguntzailea	887,12	299,68	1.186,81	1.186,81	17.802,00	12,70
Langile espezializatua	887,12	299,68	1.186,81	1.186,81	17.802,00	12,70
Salgaiak garraiatzeko langileak						
Estaturako gidaria	974,17	356,77	1.331,00	1.331,00	19.964,20	14,16
Eskualderako gidaria	950,75	342,51	1.293,24	1.293,24	19.398,68	13,77
Tokiko gidaria	947,43	328,24	1.275,67	1.275,67	19.134,73	13,60
Furgoneta-gidaria	883,79	299,68	1.183,45	1.183,45	17.751,96	12,65
Gidari laguntzailea	871,73	299,68	1.171,43	1.171,43	17.571,29	12,51
Aurrerapen-plusa	125,00					

SOLDATA-TAULAK 2018 URTEA									
ANTZINATASUNAREN SOLDATA-TAULA 1994KO URTARRILAREN 1AZ GEROZTIK KONTRATATUENTZAT									
KATEGORIAK	5 URTE	9 URTE	10 URTE	15 URTE	16 URTE	20 URTE	24 URTE	25 URTE	29 URTE
	EHUNEKO 5	EHUNEKO 5	EHUNEKO 10	EHUNEKO 15	EHUNEKO 15	EHUNEKO 20	EHUNEKO 20	EHUNEKO 25	EHUNEKO 25
Tailerretako langileak									
Taldeburua	48,50	48,50	97,02	145,52	145,52	194,02	194,02	242,54	242,54
1. mailako ofiziala	45,11	45,11	90,25	131,65	131,65	180,51	180,51	225,62	225,62
2. mailako ofiziala	43,89	43,89	87,77	131,65	131,65	175,54	175,54	219,43	219,43
Peoi espezializatua	41,92	41,92	83,86	125,78	125,78	167,70	167,70	209,64	209,64
Goi mailako teknikariak									
Laguntzaile teknikoa-ing. tek.	50,13	50,13	100,23	150,36	150,36	200,48	200,48	250,59	250,59
Administrazio-langileak									
Atalburua	53,98	53,98	107,94	161,93	161,93	215,92	215,92	269,89	269,89
Bulegoburua	51,85	51,85	103,69	155,54	155,54	207,38	207,38	259,22	259,22
1. mailako ofiziala	48,35	48,35	96,70	145,05	145,05	193,42	193,42	241,77	241,77
2. mailako ofiziala	46,48	46,48	92,96	139,43	139,43	185,92	185,92	232,39	232,39
Laguntzailea	42,31	42,31	84,65	126,96	126,96	169,30	169,30	211,61	211,61
Garraio-agentziako langileak									
Biltegiko arduraduna	50,33	50,33	100,67	151,00	151,00	201,33	201,33	251,66	251,66
Langileburua	47,82	47,82	95,68	143,51	143,51	191,35	191,35	239,19	239,19
Biltegiko eta baskulako laguntzailea	44,35	44,35	88,72	133,07	133,07	177,42	177,42	221,79	221,79
Langile espezializatua	44,35	44,35	88,72	133,07	133,07	177,42	177,42	221,79	221,79
Salgaiak garraiatzeko langileak									
Estaturako gidaria	48,72	48,72	97,42	146,12	146,12	194,83	194,83	243,54	243,54
Eskualderako gidaria	47,54	47,54	95,08	142,61	142,61	190,16	190,16	237,69	237,69
Tokiko gidaria	47,37	47,37	94,74	142,11	142,11	189,49	189,49	236,84	236,84
Furgoneta-gidaria	44,19	44,19	88,38	132,56	132,56	176,76	176,76	220,95	220,95
Gidari laguntzailea	43,58	43,58	87,18	130,77	130,77	174,35	174,35	217,93	217,93

2018 SOLDATA TAULA ANTZINATASUNA OSAGARRIEKIN										
KATEGORIAK	5 URTE	9 URTE	10 URTE	15 URTE	16 URTE	TAULA 2002	20 URTE	24 URTE	25 URTE	29 URTE
	EHUNEKO 10	EHUNEKO 20	EHUNEKO 20	EHUNEKO 25	EHUNEKO 30		EHUNEKO 40	EHUNEKO 50	EHUNEKO 50	EHUNEKO 60
Tailerretako langileak										
Taldeburua	97,03	194,03	194,03	242,55	291,06	753,39	301,36	376,69	376,69	452,04
1. mailako ofiziala	90,25	180,51	180,51	225,62	270,76	700,83	280,35	350,42	350,42	420,50
2. mailako ofiziala	87,77	175,54	175,54	219,43	263,31	681,56	272,23	340,78	340,78	408,93
Peoi espezializatua	83,86	167,70	167,70	209,64	251,55	651,12	260,45	325,56	325,56	390,68
Goi mailako teknikariak										
Laguntzaile tekniko-a-ing. tek.	100,23	200,48	200,48	250,59	300,73	778,41	311,38	389,20	389,20	467,04
Administrazio-langileak										
Atalburua	107,96	215,92	215,92	270,54	323,88	838,33	335,32	419,17	419,17	502,99
Bulegoburua	103,69	207,38	207,38	259,22	311,07	805,21	322,09	402,60	402,60	483,12
1. mailako ofiziala	96,70	193,42	193,42	241,77	290,13	750,96	300,39	375,49	375,49	450,58
2. mailako ofiziala	92,96	185,92	185,92	232,39	278,86	721,83	288,74	360,92	360,92	433,11
Laguntzailea	84,65	169,30	169,30	211,61	253,93	657,31	262,92	328,66	328,66	394,39
Garraio-agentziako langileak										
Biltegiko arduraduna	100,67	201,33	201,33	251,66	301,98	781,70	312,67	390,84	390,84	469,00
Langileburua	95,68	191,35	191,35	239,19	287,01	742,94	297,18	371,48	371,48	445,76
Biltegiko eta baskulako laguntzailea	88,72	177,42	177,42	221,79	266,13	688,87	275,56	344,43	344,43	413,33
Langile espezializatua	88,72	177,42	177,42	221,79	266,13	688,87	275,56	344,43	344,43	413,33
Salgaiak garraiatzeko langileak										
Estaturako gidaria	97,42	194,83	194,83	243,54	292,26	756,48	302,59	302,59	378,23	453,89
Eskualderako gidaria	95,08	190,16	190,16	237,69	285,24	738,30	295,32	295,32	369,13	442,97
Tokiko gidaria	94,74	189,49	189,49	236,84	284,22	735,70	294,29	367,85	367,85	441,42
Furgoneta-gidaria	88,38	176,76	176,76	220,95	265,14	686,30	274,52	343,15	343,15	411,77
Gidari laguntzailea	87,18	174,35	174,35	217,93	261,52	676,93	270,78	338,47	338,47	406,16

2019

2019 SOLDATA TAULAK						
KATEGORIAK	OINARRIZKO SOLDATA	ETEKIN-SARIA.	OPOR-HILABETEA	APARTEKO ORDAINSARIAK	URTEKO GORDINA	APARTEKO ORDUAREN BALIOA
Tailerretako langileak						
Taldeburua	988,61	363,54	1.352,15	1.352,15	20.282,62	14,38
1. mailako ofiziala	919,67	334,47	1.254,13	1.254,13	18.811,91	13,35
2. mailako ofiziala	894,37	319,90	1.214,28	1.214,28	18.214,36	12,94
Peoi espezializatua	854,43	305,37	1.159,81	1.159,81	17.397,11	12,39
Goi mailako teknikariak						
Laguntzaile teknikoa-ing. tek.	1.021,45	363,53	1.384,98	1.384,98	20.774,86	14,71
Administrazio-langileak						
Atalburua	1.100,09	378,07	1.478,17	1.478,17	22.172,55	15,71
Bulegoburua	1.056,61	363,54	1.420,16	1.420,16	21.302,48	15,10
1. mailako ofiziala	985,51	334,44	1.319,91	1.319,91	19.798,74	14,06
2. mailako ofiziala	947,21	319,90	1.267,14	1.267,14	19.007,05	13,51
Laguntzailea	862,53	290,81	1.153,37	1.153,37	17.300,55	12,35
Garraio-agentziako langileak						
Biltegiko arduraduna	1.025,76	349,02	1.374,77	1.374,33	20.621,37	14,65
Langileburua	974,92	334,48	1.309,39	1.309,39	19.640,75	13,97
Biltegiko eta baskulako laguntzailea	903,98	305,37	1.209,36	1.209,36	18.140,24	12,94
Langile espezializatua	903,98	305,37	1.209,36	1.209,36	18.140,24	12,94
Salgaiak garraiatzeko langileak						
Estaturako gidaria	992,68	363,55	1.356,29	1.356,29	20.343,52	14,43
Eskualderako gidaria	968,81	349,02	1.317,81	1.317,81	19.767,25	14,03
Tokiko gidaria	965,43	334,48	1.299,91	1.299,91	19.498,29	13,86
Furgoneta-gidaria	900,58	305,37	1.205,94	1.205,94	18.089,25	12,89
Gidari laguntzailea	888,29	305,37	1.193,69	1.193,69	17.905,14	12,75
Aurrerapen-plusa	127,38					

SOLDATA-TAULAK 2019 URTEA									
ANTZINATASUNAREN SOLDATA-TAULA 1994KO URTARRILAREN 1AZ GEROZTIK KONTRATATUENTZAT									
KATEGORIAK	5 URTE	9 URTE	10 URTE	15 URTE	16 URTE	20 URTE	24 URTE	25 URTE	29 URTE
	EHUNEKO 5	EHUNEKO 5	EHUNEKO 10	EHUNEKO 15	EHUNEKO 15	EHUNEKO 20	EHUNEKO 20	EHUNEKO 25	EHUNEKO 25
Tailerretako langileak									
Taldeburua	49,42	49,42	98,86	148,28	148,28	197,71	197,71	247,15	247,15
1. mailako ofiziala	45,97	45,97	91,96	134,15	134,15	183,94	183,94	229,91	229,91
2. mailako ofiziala	44,72	44,72	89,44	134,15	134,15	178,88	178,88	223,60	223,60
Peoi espezializatua	42,72	42,72	85,45	128,17	128,17	170,89	170,89	213,62	213,62
Goi mailako teknikariak									
Laguntzaile teknikoa-ing. tek.	51,08	51,08	102,13	153,22	153,22	204,29	204,29	255,35	255,35
Administrazio-langileak									
Atalburua	55,01	55,01	109,99	165,01	165,01	220,02	220,02	275,02	275,02
Bulegoburua	52,84	52,84	105,66	158,50	158,50	211,32	211,32	264,15	264,15
1. mailako ofiziala	49,27	49,27	98,54	147,81	147,81	197,09	197,09	246,36	246,36
2. mailako ofiziala	47,36	47,36	94,73	142,08	142,08	189,45	189,45	236,81	236,81
Laguntzailea	43,11	43,11	86,26	129,37	129,37	172,52	172,52	215,63	215,63
Garraio-agentziako langileak									
Biltegiko arduraduna	51,29	51,29	102,58	153,87	153,87	205,16	205,16	256,44	256,44
Langileburua	48,73	48,73	97,50	146,24	146,24	194,99	194,99	243,73	243,73
Biltegiko eta baskulako laguntzailea	45,19	45,19	90,41	135,60	135,60	180,79	180,79	226,00	226,00
Langile espezializatua	45,19	45,19	90,41	135,60	135,60	180,79	180,79	226,00	226,00
Salgaiak garraiatzeko langileak									
Estaturako gidaria	49,65	49,65	99,27	148,90	148,90	198,53	198,53	248,17	248,17
Eskualderako gidaria	48,44	48,44	96,89	145,32	145,32	193,77	193,77	242,21	242,21
Tokiko gidaria	48,27	48,27	96,54	144,81	144,81	193,09	193,09	241,34	241,34
Furgoneta-gidaria	45,03	45,03	90,06	135,08	135,08	180,12	180,12	225,15	225,15
Gidari laguntzailea	44,41	44,41	88,84	133,25	133,25	177,66	177,66	222,07	222,07

2019 SOLDATA TAULA ANTZINATASUNA OSAGARRIEKIN										
KATEGORIAK	5 URTE	9 URTE	10 URTE	15 URTE	16 URTE	TAULA 2002	20 URTE	24 URTE	25 URTE	29 URTE
	EHUNEKO 10	EHUNEKO 20	EHUNEKO 20	EHUNEKO 25	EHUNEKO 30		EHUNEKO 40	EHUNEKO 50	EHUNEKO 50	EHUNEKO 60
Tailerretako langileak										
Taldeburua	98,87	197,72	197,72	247,16	296,59	767,70	307,09	383,85	383,85	460,63
1. mailako ofiziala	91,96	183,94	183,94	229,91	275,90	714,15	285,68	357,08	357,08	428,49
2. mailako ofiziala	89,44	178,88	178,88	223,60	268,31	694,51	277,40	347,25	347,25	416,70
Peoi espezializatua	85,45	170,89	170,89	213,62	256,33	663,49	265,40	331,75	331,75	398,10
Goi mailako teknikariak										
Laguntzaile tekniko-ing. tek.	102,13	204,29	204,29	255,35	306,44	793,20	317,30	396,59	396,59	475,91
Administrazio-langileak										
Atalburua	110,01	220,02	220,02	275,68	330,03	854,26	341,69	427,13	427,13	512,55
Bulegoburua	105,66	211,32	211,32	264,15	316,98	820,51	328,21	410,25	410,25	492,30
1. mailako ofiziala	98,54	197,09	197,09	246,36	295,64	765,23	306,10	382,62	382,62	459,14
2. mailako ofiziala	94,73	189,45	189,45	236,81	284,16	735,54	294,23	367,78	367,78	441,34
Laguntzailea	86,26	172,52	172,52	215,63	258,75	669,80	267,92	334,90	334,90	401,88
Garraio-agentziako langileak										
Biltegiko arduraduna	102,58	205,16	205,16	256,44	307,72	796,55	318,61	398,27	398,27	477,91
Langileburua	97,50	194,99	194,99	243,73	292,46	757,06	302,83	378,54	378,54	454,23
Biltegiko eta baskulako laguntzailea	90,41	180,79	180,79	226,00	271,19	701,96	280,80	350,97	350,97	421,18
Langile espezializatua	90,41	180,79	180,79	226,00	271,19	701,96	280,80	350,97	350,97	421,18
Salgaiak garraiatzeko langileak										
Estaturako gidaria	99,27	198,53	198,53	248,17	297,81	770,85	308,34	308,34	385,42	462,51
Eskualderako gidaria	96,89	193,77	193,77	242,21	290,66	752,33	300,93	300,93	376,14	451,39
Tokiko gidaria	96,54	193,09	193,09	241,34	289,62	749,68	299,88	374,84	374,84	449,81
Furgoneta-gidaria	90,06	180,12	180,12	225,15	270,18	699,34	279,74	349,67	349,67	419,59
Gidari laguntzailea	88,84	177,66	177,66	222,07	266,49	689,79	275,92	344,90	344,90	413,88

2020

2020 SOLDATA TAULAK						
KATEGORIAK	OINARRIZKO SOLDATA	ETEKIN-SARIA.	OPOR-HILABETEA	APARTEKO ORDAINSARIAK	URTEKO GORDINA	APARTEKO ORDUAREN BALIOA
Tailerretako langileak						
Taldeburua	1.005,91	369,90	1.375,81	1.375,81	20.637,57	14,63
1. mailako ofiziala	935,76	340,32	1.276,08	1.276,08	19.141,12	13,58
2. mailako ofiziala	910,02	325,50	1.235,53	1.235,53	18.533,11	13,17
Peoi espezializatua	869,38	310,71	1.180,11	1.180,11	17.701,56	12,61
Goi mailako teknikariak						
Laguntzaile teknikoa-ing. tek.	1.039,33	369,89	1.409,22	1.409,22	21.138,42	14,97
Administrazio-langileak						
Atalburua	1.119,34	384,69	1.504,04	1.504,04	22.560,57	15,98
Bulegoburua	1.075,10	369,90	1.445,01	1.445,01	21.675,27	15,36
1. mailako ofiziala	1.002,76	340,29	1.343,01	1.343,01	20.145,22	14,31
2. mailako ofiziala	963,79	325,50	1.289,31	1.289,31	19.339,67	13,75
Laguntzailea	877,62	295,90	1.173,55	1.173,55	17.603,31	12,57
Garraio-agentziako langileak						
Biltegiko arduraduna	1.043,71	355,13	1.398,83	1.398,38	20.982,24	14,91
Langileburua	991,98	340,33	1.332,30	1.332,30	19.984,46	14,21
Biltegiko eta baskulako laguntzailea	919,80	310,71	1.230,52	1.230,52	18.457,69	13,17
Langile espezializatua	919,80	310,71	1.230,52	1.230,52	18.457,69	13,17
Salgaiak garraiatzeko langileak						
Estaturako gidaria	1.010,05	369,91	1.380,03	1.380,03	20.699,53	14,68
Eskualderako gidaria	985,76	355,13	1.340,87	1.340,87	20.113,18	14,28
Tokiko gidaria	982,33	340,33	1.322,66	1.322,66	19.839,51	14,10
Furgoneta-gidaria	916,34	310,71	1.227,04	1.227,04	18.405,81	13,12
Gidari laguntzailea	903,84	310,71	1.214,58	1.214,58	18.218,48	12,97
Aurrerapen-plusa	129,61					

SOLDATA-TAULAK 2020 URTEA									
ANTZINATASUNAREN SOLDATA-TAULA 1994KO URTARRILAREN 1AZ GEROZTIK KONTRATATUENTZAT									
KATEGORIAK	5 URTE	9 URTE	10 URTE	15 URTE	16 URTE	20 URTE	24 URTE	25 URTE	29 URTE
	EHUNEKO 5	EHUNEKO 5	EHUNEKO 10	EHUNEKO 15	EHUNEKO 15	EHUNEKO 20	EHUNEKO 20	EHUNEKO 25	EHUNEKO 25
Tailerretako langileak									
Taldeburua	50,28	50,28	100,59	150,87	150,87	201,17	201,17	251,48	251,48
1. mailako ofiziala	46,77	46,77	93,57	136,50	136,50	187,16	187,16	233,93	233,93
2. mailako ofiziala	45,50	45,50	91,01	136,50	136,50	182,01	182,01	227,51	227,51
Peoi espezializatua	43,47	43,47	86,95	130,41	130,41	173,88	173,88	217,36	217,36
Goi mailako teknikariak									
Laguntzaile teknikoa-ing. tek.	51,97	51,97	103,92	155,90	155,90	207,87	207,87	259,82	259,82
Administrazio-langileak									
Atalburua	55,97	55,97	111,91	167,90	167,90	223,87	223,87	279,83	279,83
Bulegoburua	53,76	53,76	107,51	161,27	161,27	215,02	215,02	268,77	268,77
1. mailako ofiziala	50,13	50,13	100,26	150,40	150,40	200,54	200,54	250,67	250,67
2. mailako ofiziala	48,19	48,19	96,39	144,57	144,57	192,77	192,77	240,95	240,95
Laguntzailea	43,86	43,86	87,77	131,63	131,63	175,54	175,54	219,40	219,40
Garraio-agentziako langileak									
Biltegiko arduraduna	52,19	52,19	104,38	156,56	156,56	208,75	208,75	260,93	260,93
Langileburua	49,58	49,58	99,21	148,80	148,80	198,40	198,40	248,00	248,00
Biltegiko eta baskulako laguntzailea	45,98	45,98	91,99	137,97	137,97	183,95	183,95	229,96	229,96
Langile espezializatua	45,98	45,98	91,99	137,97	137,97	183,95	183,95	229,96	229,96
Salgaiak garraiatzeko langileak									
Estaturako gidaria	50,52	50,52	101,01	151,51	151,51	202,00	202,00	252,51	252,51
Eskualderako gidaria	49,29	49,29	98,59	147,86	147,86	197,16	197,16	246,45	246,45
Tokiko gidaria	49,11	49,11	98,23	147,34	147,34	196,47	196,47	245,56	245,56
Furgoneta-gidaria	45,82	45,82	91,64	137,44	137,44	183,27	183,27	229,09	229,09
Gidari laguntzailea	45,19	45,19	90,39	135,58	135,58	180,77	180,77	225,96	225,96

2020 SOLDATA TAULA ANTZINATASUNA OSAGARRIEKIN										
KATEGORIAK	5 URTE	9 URTE	10 URTE	15 URTE	16 URTE	TAULA 2002	20 URTE	24 URTE	25 URTE	29 URTE
	EHUNEKO 10	EHUNEKO 20	EHUNEKO 20	EHUNEKO 25	EHUNEKO 30		EHUNEKO 40	EHUNEKO 50	EHUNEKO 50	EHUNEKO 60
Tailerretako langileak										
Taldeburea	100,60	201,18	201,18	251,49	301,78	781,13	312,46	390,57	390,57	468,69
1. mailako ofiziala	93,57	187,16	187,16	233,93	280,73	726,65	290,68	363,33	363,33	435,99
2. mailako ofiziala	91,01	182,01	182,01	227,51	273,01	706,66	282,25	353,33	353,33	423,99
Peoi espezializatua	86,95	173,88	173,88	217,36	260,82	675,10	270,04	337,56	337,56	405,07
Goi mailako teknikariak										
Laguntzaile tekniko-a-ing. tek.	103,92	207,87	207,87	259,82	311,80	807,08	322,85	403,53	403,53	484,24
Administrazio-langileak										
Atalburua	111,94	223,87	223,87	280,50	335,81	869,21	347,67	434,60	434,60	521,52
Bulegoburua	107,51	215,02	215,02	268,77	322,53	834,87	333,95	417,43	417,43	500,92
1. mailako ofiziala	100,26	200,54	200,54	250,67	300,81	778,62	311,46	389,32	389,32	467,17
2. mailako ofiziala	96,39	192,77	192,77	240,95	289,13	748,41	299,38	374,22	374,22	449,06
Laguntzailea	87,77	175,54	175,54	219,40	263,28	681,52	272,61	340,76	340,76	408,91
Garraio-agentziako langileak										
Biltegiko arduraduna	104,38	208,75	208,75	260,93	313,11	810,49	324,19	405,24	405,24	486,27
Langileburua	99,21	198,40	198,40	248,00	297,58	770,31	308,13	385,16	385,16	462,18
Biltegiko eta baskulako laguntzailea	91,99	183,95	183,95	229,96	275,94	714,24	285,71	357,11	357,11	428,55
Langile espezializatua	91,99	183,95	183,95	229,96	275,94	714,24	285,71	357,11	357,11	428,55
Salgaiak garraiatzeko langileak										
Estaturako gidaria	101,01	202,00	202,00	252,51	303,02	784,34	313,74	313,74	392,16	470,60
Eskualderako gidaria	98,59	197,16	197,16	246,45	295,75	765,50	306,20	306,20	382,72	459,29
Tokiko gidaria	98,23	196,47	196,47	245,56	294,69	762,80	305,13	381,40	381,40	457,68
Furgoneta-gidaria	91,64	183,27	183,27	229,09	274,91	711,58	284,64	355,79	355,79	426,93
Gidari laguntzailea	90,39	180,77	180,77	225,96	271,15	701,86	280,75	350,94	350,94	421,12